


Zazpi akatsak

Okerrak dira... zuzendu ahaztu barik!

Irudia



'Warrior' ontzia eta tripulazioa

Warrior ontzia, goiko argazkian, eta tripulazioa, behean. Warrior ontzian, besteak beste, Mutriku, Ondarroa eta Lekeitioko marinelek lan egin zuten. 1920an ekarri zuten Euskal Herrira, eta Goizeko-Izarra izena ipini zioten (Ramon de la Sotak). Espainiako Gerra garaian, herritarrak estatutik ateratzen lan egin zuten ontziak. WARRIOR-GOIZEKO IZARRA

Gutunak



'Warrior' ontziko tripulazioa, ez 'Vita'-koa

Lekeitioko Kurik urtekari ederrean agertu den informazio oker bati buruz hitz egin nahi dugu.

2014an argitaratu zen Kurik urtekariko 130. orrialdean, *Lekeitiarrak gerran. Zertzelada batzuk El tesoro del 'Vita'* izenburua duen artikuluan, itsasontzi bateko tripulazioaren argazkia azaltzen da, eta argazki oinak dio tripulazio hori Vita itsasontziko delako. Baina ez da horrela, tripulazio hori Warrior izeneko itsasontziko delako, bertako gizonen arropetako Warrior hitzak azaltzen duen bezala.

Mutrikuko laupabost senide ibili ziren itsasontzi horretan, bai Warrior izena izan zuen bigarren aldia (1937-39) bai eta aurretik ere. Argazki horretan, adibidez, alboz eta zutik dagoen gazteena Iñaki Arrizabalaga Lizardi *Martintxiki* mutrikuarra da. Hortxe ikusten dugu, baita ere, erdiko ilaran zutik eta argazkiaren erdi-erdian, bere osaba Jesus Arrizabalaga *Masillas*, jertsean Warrior hitza daramala.

Warrior yatea Eskozian eraiki eta hainbat eskutatik pasa ondoren, 1920an Euskal Herrira ekarri zuten, Ramon de la Sotak erositako. Horrek *Goizeko-Izarra* izena ipini zion.

Jesus Masillas 1925ean, 18 urterekin, itsasoratu zen *Goizeko-Izarran*, eta orduan egin zituen hiru kosteretako bakoitzean, lau hilabete ematen zituen Mediterrean, eta hilabete Ipar Itsasoan.

Espainiako Gerran Ramon de la Sotak Eusko Jaurlaritzari laga zion *Goizeko-Izarra* ontzia herritarrak Frantziara ateratzeko, eta 1937ko maiatzean herritarrak eramateko hiru bidaiak egin zituen.

Jardun horretan zebilela, Ingalaterrako Sir Hugo Cunliffe Owenek erosi, eta azken bi bidaiak egin zituen herritarrak Bilbotik ateratzen, berriro ere Warrior izena ipinita.

Jabe berriak, nahiz eta ofizial ingelesak kontratatu, De la Sotarekin ibilitako marinelekin jarraitu zuen, eta, gainera, Espainiako guda zela eta, Frantzian erbesteratuta bizi ziren hainbat euskaldun ontziratu zituen eginkizun horretarako. Besteak beste, lehen aipatutako Iñaki Arrizabalaga, Pantzezka bere anaia zaharrena, bien osaba Juan Lizardi *Kanuto*...

Hain zuzen ere, garai horretako da (1937-39) aipatzen dugun argazkia; Bretaña Handia, Islandia, Niza, Istanbul eta beste hainbat lekutatik nabigatu zutenekoa, alegia.

Argazki horretan goian aipatutako senideez gain, badakigu ondarrutar eta lekeitiar marinek ere badirela. Horrela izanik, gustatuko litzaiguke argazki hori ikusten duenak Warrior itsasontzia izatea gogoan eta ez goian aipatutako artikuluan esaten dena. Begiratu ondo, hementxe bertan dituzue argazkiak eta.

-Idoia Arrizabalaga, Mutriku.

HITZAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere —espazioak barne— baino luzeago izan behar, eta **HITZAK** mozteko eskuñidea dauka.

Bagenekien akatsak helduko zirela eta hori dela eta aurtengo Kuririk orrialde bi eskaini dizkio atal honi. Akatsok ez gaituzte lotsatzen, baina bai ernegatzen, zuzen eta txukun egitea gustatuko litzaigukelako aldizkari hau. Edozein modutan ere, badakizue: *errare humanum est*. Bestalde, merezi ete du perfekzioaren bilatze bukaezin horrek halako adeitasunez akatsak izan dituzula esaten dizuenean? Gehiagotan erratzeko gogoia ematen digu. Idoia Arrizabalagak, gainera, primeran kontatu du istorio hori, eskerrik asko, beraz, zuri.

Gaztelania eta latinaren tiraniatik ezin ihes eginda gabiltza, zazpi akatsak (los siete errores), *errare humanum est*... Honek ezin du izan, euskarak badu eta horretarako berezko esakera, gainera aproposagoa: **akerrak adarrak okerrak ditu**. Adarrok zuzenak izan beharko lirateke, okertasunean datza beraz akatsa, okerra. Akerra noski, aditzaile onari hitz gutxi, gizakia, humanum-a litzateke. Adarrak berriz, akerraren nortasun ezaugarri nagusia, gizakiarena erratzea den antzera. Zergatik uste duzu, ba, adarra jo esaera erabiltzen dela?

Portzierto, aurreko Kuriken erregea aipatu genuen eta zelan barkamena eskatu zuen. Guk, bere erakusbidea jarraituz, gure okerrak onartuko genituzke. Baina, kontua da errege horrek kargua utzi duela eta esandakoa bete nahi izan ezkeren irtenbide bakarra geratuko litzaigukela... Eta hori be ez da. Zer arraio! Datorrela berriro errege zaharra!



*Errare humanum est,
perseverare diabolicum*

